**PRENTSA OHARRA**

## Agurainek 2025erako aurrekontuak onartu ditu aho batez

Udal Gobernu taldeak 150.000 euroko balioa duten zuzenketak onartu dizkio oposizioari.

Berrikuntzen artean, Senda Langarika plaza eta Magdalena auzoa urbanizatzeko lanak nabarmentzen dira.

Agurain 24-11-29. Aguraingo Udaleko Osoko Bilkurak 2025 urterako kontuak onartu zituen atzoko osoko bilkuran aho batez. Guztira, aurrekontua 12 milioi eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko hasierako aurrekontua baino % 22,6 gutxiagokoa. Jaitsiera horren arrazoi nagusia da kiroldegia birgaitzeko lanen kontsignazioa 2024ko kontuetan kontabilizatzen dela. 2025. urterako aurrekontuak 623.628 euroko aurrezki garbia du.

Aguraingo alkate Raúl López de Uraldek azaldu duenez, "*proiektu asko ditugu martxan, baina gure lehentasunak etxebizitzan, zaintzan eta trantsizio energetikoan kokatzen ditugu; zehazki, 2025ean, kirol gune berriaz gain, gazteentzako alokairu sozialeko 13 etxebizitza ere eraikiko dira Bustamante jauregian, Harresi auzoan kokatuko den adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa Zentro berria eraikiko dugu eta biomasaren bidezko bero-sarea ere martxan jarriko dugu, zeinak ur beroa eta berogailua emango dituen eskola-eremura eta osasun-zentrora*".

2025erako kontuek beste partida berritzaile batzuk jasotzen dituzte, hala nola Senda Langarika plaza (1.009.275 €) eta Magdalena auzoa (551.600 €) urbanizatzeko lanak, biak ere Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez finantzatuak, edo hiri-baratzeak sortzeko lanak (182.000 €), "Biodiversidad" Fundazioak finantzatuta.

**alkatea.raul@agurain.eus**

NOTA DE PRENSA

## Agurain aprueba por unanimidad los presupuestos para 2025

El equipo de gobierno acepta enmiendas por valor de 150.000 euros a la oposición.

Entre las novedades, destacan los trabajos de reurbanización de la plaza Senda Langarica y el barrio de la Magdalena.

Agurain 29-11-24. El pleno del Ayuntamiento de Agurain dio, por unanimidad, luz verde en el pleno de ayer a las cuentas para el próximo ejercicio 2025. En total, el presupuesto asciende a la cantidad de 12 millones de euros, lo que supone un descenso del 22,6% respecto al presupuesto inicial del ejercicio anterior. Este descenso se debe fundamentalmente a que la consignación para la obra de rehabilitación del polideportivo y ampliación del área deportiva edificada se contabiliza con cargo a las cuentas de 2024. El presupuesto para el ejercicio 2025 presenta un ahorro corriente neto positivo, que alcanza el importe de 623.628 €.

Según ha explicado el alcalde de Agurain Raúl López de Uralde *"tenemos muchos proyectos en marcha pero nuestra prioridad se centrará en la vivienda, los cuidados y la transición energética; concretamente este próximo año 2025, además del nuevo complejo deportivo, también verán la luz los 13 pisos de alquiler social para jóvenes en el palacio Bustamante, el nuevo Centro Rural de Atención Diurna para personas mayores en el barrio de Harresi y la red de calor mediante biomasa que suministrará agua caliente y calefacción a la zona escolar y el centro de salud"*.

Las cuentas para 2025 recogen otras partidas novedosas como las destinadas a los trabajos de reurbanización de la plaza Senda Langarica (1.009.275 €) y el barrio de la Magdalena (551.600 €), ambas financiadas por el Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación o la creación de huertos urbanos (182.000 €) con financiación prevista por parte de la Fundación Biodiversidad.

alkatea.raul@agurain.eus